

# noaua

**Kontsultarako galdera  
aurkeztuko dute  
igande honetako  
'Bizi Kalea' festan**

**Jubilatu Astea, azken  
txanpan**

**Maria Angeles Arrutik**

**biztanleriari buruzko datuak batu ditu**

# **Aginaga, zenbakitan**

**GOLDWELL**  
**ELUMEN**

*ileapaindegia*

**mistoa**

**Koloraziotan teknika berriak eta iraunkorrrak**

Zubiaurrenea 4, ☎ **943 361 951**

  
**FUNERARIA GONZALEZ**  
EHORZTETXEA  
munalurra 8, USURBIL

**AURTEN HILERRI ZAHARRAREN ITXIERA:**

- GORPUZKI ETA HILOTZ-HONDARRAK ZUEN KABUZ KUDEATU NAHI BADITUZUE GUZTIAZ ARDURATZEN GARA:
- HILERRI ZAHARRETIK ATERA ETA ERRAUSTEAZ
- HILERRI ZAHARRETIK BERRIRA ERAMATEAZ

(IZAPIDE GUZTIAK EGITEN DITUGU: OSASUN SAILEKO BAIMENAK, UDALA, ERREGISTRO ZIBILA, OSASUN-GARRAIOA ERRAUTS-LABERA EDO BESTE HILERRI BATERA...)

**OSASUN SAILAK BAIMENDUTAKO ENPRESA GARA (ERREG ZB: F18)**

**943 36 21 63 (24H)**

AURREKONTU ETA INFORMAZIOA KONPROMISORIK GABE



- BEILATOKI GUZTIAK - ERRAUSKETAK
- EDOZEIN ASEGURU IZANDA (**OCASO, SANTALUCIA...**) HERIOTZA GERTATZEN BADA, DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H. GUZTIAZ ARDURATZEN GARA

KALITATEZKO PRODUKTUEKIN ESTILISMOA ETA ESTETIKA LANTZEN DITUGU

  
**INTZA**  
ILEAPAINDEGIA  
ESTETIKA ZENTROA

**AURPEGIKO ETA GORPUTZEKO TRATAMENDUAK**

GOLDEN PEN mikro-zulaketa dermiko eta oszilazio bertikalean oinarritutako teknologia aurreratuarekin, tratamenduen eraginkortasun handiagoa lortzen dugu:



- Aktiboen xurgatzea hobetzen du
- Kolageno eta elastina berrien sorkuntza aktibatzen du
- Orbain, akne eta ildaska markak murrizten ditu.
- Espresio lerroak lausotzen ditu (ezpainak, begiak...)
- Azala tentsatu eta gazteagotzen du
- Orbanen sorkuntza ekiditen du
- Zelulitisa ezabatzen laguntzen du

Eguerdian irekital Nagusia 8, Usurbil - Tel: 943 36 36 41

## Albistea iruditan

# Garazi Lizaso Manterolak 'accessit' bat eskuratu du

**E**uskal Herriko Unibertsitatearen master amaierako lanetan genero ikuspegia barne hartzen dituen lanak ezagutarazi eta nabarmentzen ditu Maria Goyri Sariketak. Emakumeen Egunean banatu zituzten bosgarren ediziooko sariok. Goraipatu dituzten lanen artean, usurbildar batena dago; Garazi Lizaso Manterolaren "Birrindutakoa berpizten. Ahaztutako arkitekturak eta emakumeak: Saturrarango emakumezkoen espetzearen adibidea". Sarioko "accessit"-a eman diote herritarriari. Aipamen berezi modukoa jaso du bere lanak. Zorionak Garazi!

## Saturrarango espetxeke emakumei buruz

Eraikitako Ondarearen eta Eraikinen Birgaitze, Zaharberitze eta Kudeaketa masterraren amaieran egin zuen Lizasok gai honi buruzko lanketa. 1938-44 urte artean zabalik izan zen Saturrarango emakumezkoen kartzelari buruzkoa hain zuzen. 1987an eraitsi zuten "eta ez da arrasto materialik geratu. Kartzela zenean gertatutakoak jaso nahi izan dira lanean, arkitekturaren



Master amaierako lanetan genero ikuspegia barne hartzen dituen lanak nabarmentzen ditu Maria Goyri Sariketak.

potentzialtasunari eta genero aldagaieren pisuari buruz hausnartuz". Usurbildarrak bere lanean gogoratzen duenez, "Saturrarango kartzela eraisteak bertan jazotakoak jendartearen memoriatik eza-

batzea ekarri du". Ez horrek bakarrik, emakume izatean eta frankismoaren aurka egoteagatik "ikusezintasun bikoitza pairatzera kondenatuak zeuden bertan giltzaperatuak".

## Laburrean

### Hilerri zaharra hustutzera doa Udala

Familiartekoen gorputz-hondarrak berreskuratu nahi dituztenek hiru hilabete epea izango dute horretarako. Informazio gehiago, Udaleko zerga-bilketako leihatillean, astelehenetik ostiralera, 13:00etatik 14:00etara.

### Martxoan, ikastaro ugari KzGunean

Martxoan goizez, 09:00-13:00 artean irekiko dute.

- Martxoak 15-28, 09:00-11:00: "Ofimatika tresnak".
- Martxoak 29, 09:00-11:00: "Programa informatiko onenak jaitsi".

### "Euskararen sagartzea" elkartasun kanpaina

Baionako Bernat Etxepare Iparraldeko euskal lizeo bakarra da. Eraikin berria finantzatzeko diru premian dira. Ekarpenak egiteko orrialdeak topatuko dituzue NOAUA'n, Alkartasuna Kooperatibian, Lizardin eta Udarregi ikastolan.

# noaUA

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 // elkartea@noaUA.eu // www.noaUA.eu

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

#### Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

#### Aldizkari koordinatorazaila:

Imanol Ubeda.

#### Idazkaria:

Aizpea Aizpurua.

#### Publizitatea:

Beatriz Alda,

publizitatea@noaUA.eu

#### Diseinu berria:

Erroitz S. L.

#### Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaUA.eu:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

#### Banaketa:

Olatz Rezola, Ekhi

Arrieta.

#### Laguntzaileak:

Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbietta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

**Tirada:** 2.800 ale.

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



## EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

### HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Euskal Herra!



Aritz Gorriti

## Aurrera edo atzera?

Zortzi urte bete dira, udalerrri hau hondakinen kudeaketa eredu irautila eta bide berri bat jorratzen hasi zenetik. Aitzindari bihurtu zuen atez atekoak eta atez atekoak ekarri zuen iraultzak, Usurbil. Euskal Herriko mapan, udalerrri erdugarri gisara kokatzeraino. Bide honetara batu ziren gero pixkanaka, beste hainbat udalerrri.

Argi erakutsi dute usurbildarrek, egunerokoan etxeko ohitura aldaketa txiki batek ekarri duen aldaketa handia. Datuak eskutan, ukazina den errealitatea. Usurbilgo Udalak ezagutzera eman berri dituen azken zifren arabera, %84aren bueltan dugu gaikako bilketa.

Eta etorkizunera begirako bide-orri bat ere bada bada; "Usurbil 0.0" delakoa. Dokumentu hau osatzen lagundu duten herritar eta eragileekin batera, nazioarteko adituek parte hartu dute ontze prozesuan. Adituotako batek

ezagutza sakona du Katalunian hedatu askoa dagoen atez ateko bilketen esperientziez. Abenduaren 22an "Usurbil 0.0" egitasmoa aurkeztu zenean harrituta agertu zen, ez zuelako ulertzen nolatan bihurtu den gai hau, liskar eta gatazkarako gai Gipuzkoan. Katalunian ez zuten herrialde honetan bizitako tamainako arazorik izan.

Ziur aski, distantziatik hobe azalduko luke berak zer ari den gertatzen. Ulertezina egingo litzaioke, herrialde honetan hondakinekin gertatzen ari dena. Batetik herrialde mailako erakundea, kalean desadostasuna, kezka eta haserre baina eragiten ari ez den azpiegitura kutsakor eta kaltegarri bat inposatu nahian. Hondakinak murriztu eta birziklatzeko neurriak oztokatzen, nola ez, bestela "jatekorik" gabe utziko luke erraustegia. Eta udalerrrietara etorrita, sendagaiekin gertatzen den moduan, dirudenez, errezeta bera ez da baliagarri denentzat. Edo uneren batean izan da, eta ulertezinak

zaizkidan arrazoiengatik gaur egun ez.

Usurbilen atez atekoaren 8. urtemuga honetan zer ospatua izan eta etorkizunean kudeaketa eredu propio batez bidea jorratzen ari garen artean, beste udalerrri batzuk atez atekoa kendu dute edo ezabatzeke bidean dira. Edota besteetan, edukiontzien sistema ere ez dute behar bezala garatuta. Abiadura ezberdinetan doaz Gipuzkoako udalerrriak. Eta batzuetan, ez naiz gai esateko zer norabidetan. Atez atekoa zuten hainbat udalerririk, edukiontzien sistemara "itzultzea" erabaki dute. Lehorretarrak azkenak, aurreko igandean eginiko galdeketa gehiengoz bozka bidez hala adierazi dute.

Eta hemen dilema; kasuotan sistemaz aldatzea, atzera edo aurrera egitea den. Bitxia inondik ere, atez atekoa martxan jarri eta hiru asteetan gaikako bilketa %33tik %72ra igotzea lortu zuen udalerrri batek, bilketa sistemaz aldatu nahi izatea. Deigarria behintzat bada.

Harro egoteko modukoa behar bailuke herritarrentzat, hain denbora gutxian erdie-tsitako garaipena. Zalantzak sortzen dizkit gaiak. Ez nuke gaia muturreraino eraman nahi. Agian, Usurbilgo zibilborretik begiratuta, guztia beste modu batean ikusi eta interpretatzeko joera izan dezakegu. Baina guk geronek, geronen erantzukizunez sortutako hondakinak gaika biltzea derrigortu eta gaikako bilketa ehuneko altuetara heltzea bermatzen duen sistema bat kentzea, erantzukizunez jokatzera al da?

Ziur faktore nahasketa bat egongo dela Gipuzkoan hainbat udalerrietan hartu dituzten edo hartzen ari diren erabakion atzean. Baina sinesgaitza dirudi, usurbildarrek 8 urteotan erakutsi duten moduan, behingoz atez atekoak geronek sortzen ditugun hondakinen arazoaren konponbidearen atarian jartzten gaituela ikusita, hainbat udalerrietan hartzen ari diren norabidea.

Aritz Gorriti | Imanol Ubeda | Maialen Unanue | Garazi Lizaso Manterola | Luken Arkarazo | Idoia Torregarai | Luis Aranalde

### Ika-Mika

## Yoko Garbi Elkarteak irekitzeko, elkarretaratzea ostiralero

Zubietako Yoko Garbi "soziedadea"/ elkartea ixterra behartu gaituzte.

Azken 60 urte baino gehiagoan, zubietarrok izan dugun elkargunea itxiarazi digute eta honek herrian egonezin ika-

ragarria sortu du. Begibistan dago, kaltetuak denok garela, Yoko Garbi baita, ume, gazte eta helduok bildu ahal izateko dugun lokal bakarra.

Egoera honek bazkide eta zubietar guztioi dakarzkigun

eragozpen eta arazo larrien aurrean, herritar talde bat ostiralero biltzen gara Zubietako Errebote plazan arratsaldeko 20:00etan; alde batetik, gure egoneza adierazteko eta bestetik Yoko Garbi irekitzearen

aldeko aldarrikapena egin eta entzunarazteko. Denon ahalegina beharrezkoa denez, animazaitz!

**Zubietako Yoko Garbi**

\* Ika-Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUAk ez du bere gain hartzen Ika-Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatuta eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: martxoak 24. Idatzia ekartzeko azken eguna: martxoak 20.

# Autodefentsa feminista ikastaroa antolatu dute larunbat honetarako

**M**atrakak Usurbilgo Talde Feministak eta Usurbilgo Udalak Martxoaren 8 honi lotuta antolatu dituzten ekimenetan azkena, autodefentsa feminista ikastaroa, larunbat honetan egingo da, martxoaren 18an Potxoenean. Ia hiru hamarkadaz munduan zehar indarkeria sexistaren aurkako prebentzio lanetan aritu, eta honenbestez, eremu honetan esperientzia zabala duen Maitena Monroyk bideratuko du saioa. Lehendik ere egona da ekimenok gidatzen udalerrri honetan.

## Ahalduntze saioa

Helburu ezberdinak ditu autodefentsa feminista ikastaroak: erasoak identifikatzen ikastea, horretarako baliabide eta lanabesak eskainiz; erasoeri erantzuteko jokabide eta mekanismoak aurkitzea; eskubide, ardura eta gaitasun ez kontzientziatzea ahalbidetuko duen espazioa sortzea; indarkeriaren zergatiak eta eragina aztertu eta baloratzea...

Bi lan eremuetan jardungo dute parte hartzaileek; bat fisikoa, bestea psikologikoa, "gure eskubideez, indarrak, gure balioaz kontzientziatu eta pertsona ziurgabe, zalantzati,



Maitena Monroyk bideratuko du ikastaroa.

## EZAUGARRIAK

**Bi lan eremuetan jardungo dute parte hartzaileek; bat fisikoa, bestea psikologikoa, "gure eskubideez, indarrak, gure balioaz kontzientziatu eta pertsona ziurgabe, zalantzati, kaltebera, eta gutxiestuan bihurtuko gintuzkeen topikoak ezabatzeko"**

kaltebera, eta gutxiestuan bihurtuko gintuzkeen topikoak ezabatzeko". Indarkeria sexistaren zergatiak aztertuko dituzte.

## Tailerraren xehetasunak

- Eguna: martxoak 18, larunbata.
- Orduetgia: 10:00-14:00/15:30-19:30.
- Tokia: Potxoenea.
- Bideratzailea: Maitena Monroy.
- Nori zuzendua: ikastaroan parte hartu nahi duen emakume orori.
- Oharrak: arropa eroso eta boligrafo bat.
- Izen ematea aurrez, Usurbilgo Udalaren Parekidetasun Sailean: 943 377 110 parekidetasuna@usurbil.eus
- Antolatzaileak: Matrakak Usurbilgo Talde Feminista eta Usurbilgo Udala.

# Energia gaiei loturiko bi hitzordu

Pobrezia energetikoaren eremuan egiten ari den lanketaren baitan, energia kontuei loturiko bi hitzordu deitu ditu Usurbilgo Udalak, datorren asteerako.

## Martxoak 22, asteazkena

- 19:00 Hitzaldia Potxoenean: "Etxeko faktura elektrikoa ulertzen eta hobetzen".
- Hizlaria: Alex Lopez, Goi-

nerreko bazkidea.

- Zehaztasunak: "Bertaraturiko direnei, bakoitzaren etxeko faktura ekartzea gomendatzen da, fakturaren interpretazioaren inguruko xehetasunak han bertan ikusteko".

## Martxoak 25, larunbata

- 10:00 Lanbide Eskolako energia berriztagarri eta era-

ginkortasun energetikoari buruzko bisita.

- Oharra: bisitarako izena aurrez eman Usurbilgo Udalean edo ingurumena@usurbil.eus helbidera idatzita.
- Antolatzaileak: Usurbilgo Udala, Goiener Energia berriztagarrien sorkuntza eta erosle kooperatiba eta Usurbilgo Lanbide Eskola.

## Igogailuak ezartzeko diru-laguntzak eska daitezke oraindik

Nekazaritza eta abeltzaintza, kultura, kirola, gizartegintza, eta ingurumen eremuetako egitasmoak laguntzeko Usurbilgo Udalak eginiko diru-laguntza deialdira eskabideak aurkezteko epea astelehenean, martxoaren 13an itxi zuten. Aldiz, indarrean segiko du beste bi hilabetez, Udalak aurtengoan txertatu duen igogailuak jartzeko diru-laguntza lerro berrian parte hartzeko deialdiak. Guztira 10.000 euro bideratuko ditu Udalak laguntza mota honetara. "Eskaera bakoitzeko diru laguntza, gehienez, 1.000 eurokoa izango da", ohartarazi dute Udaletik.

## Lan uzte gehiago Euskotrenen

Lan uzte partzial gehiago iragarri dituzte Euskotreneko langileek. Honenbestez, gutxieneko zerbitzuak egongo dira, martxoaren 16, 18, 20, 22, 24, 28 eta 30ean. Baita apirilaren 1, 5, 7, 11, 13, 15, 17, 19, 21, 25, 27 eta 29an. Aipatu moduan, gutxieneko zerbitzuak ez dira egun osoz izango, ordu tarte jakinetan baizik. Momentuz, martxoaren 16, apirilaren 3, 5, 7, 25 eta 27ko gutxieneko zerbitzuen orduetgia zehaztu dute: 6:25-8:35 artean eta 17:25-19:35 artean izango dira, Zumaia-Donostia eta Lasarte-Hendaia lineetan. Martxoaren 18rako, larunbat honetarako ere gutxieneko zerbitzuak finkatu ditu Euskotrenek, Lasarte-Hendaia artean, 11:55etik 16:05era.

## Informazio gehiagorako:

944 333 333

euskotren.eus

- Twitter: @euskotrenEJGV
- Lan uzteak egiten ari diren langileen berri: Euskotren Amarako Langileak (Facebook)
- @EuskotrenAmara (Twitter)

# Erraustegiak badu alternatiba

**E**zer berririk ez dugu jasotzen alternatiba honetan. Hori esanez hasi zuten Errausketaren Aurkako Mugimenduko ordezkariak, martxoaren 9an Donostiako Udalean egin zuten agerraldia. Erraustegia alboratzen duen alternatiba osasuntsuago eta merkeagoa aurkeztu zien aipatu mugimenduak hedabideei. 2011-15 legealdian Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak landua zuen proiektua hain zuzen. Gako nagusiok ditu; batetik, gaikako bilketa sistema eraginkorra Gipuzkoa osora hedatzea; bildutako zati bakoitza egoki tratatzea; edota neurriekin nabarmen murriztuko litzatekeen erreusarentzat Tratamendu Mekaniko Biologikorako planta malgua eraikitzea.

Eguno Gipuzkoako Foru Aldundiak Zubietan eraiki eta 2019rako martxan jarri nahi duen erraustegiaren parean, kostuak murriztuko litzuzke alternatiba honek. Eta noski, ingurumen eta gipuzkoarren osasunarentzat, alternatiba askoz jasangarriagoa litzateke.

## Garai bateko plana berreskuratzeko eskaera

Errausketaren Aurkako Mugimenduko ordezkariak Donostian zioten moduan, aurreko legealdian Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak (GHK) landua izan baina “kaxoian gordea duten” alternatiba da aurkeztu dutena. Erraustegia guztiz alboratzen duena. Eguno Gipuzkoako Foru Aldundiak 2019rako Zubietan eraiki asmo duen errauste planta baino errazago eta azkarrago egingarri bilaka dezakeen alternatiba. Hondakinen kudeaketari irtenbide merkeago eta osasuntsuagoa emango diona. Aurreko



2011-2015 legealdian Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak landua zuen proiektuaren aldeko apustua berretsi dute.

### GAKO NAGUSIAK

**“Gaikako bilketa sistema eraginkorra Gipuzkoa osora hedatzea; bildutako zati bakoitza egoki tratatzea; edota neurriekin nabarmen murriztuko litzatekeen erreusarentzat Tratamendu Mekaniko Biologikorako planta malgua eraikitzea”**

legealdian GHK-k landu zuen plangintza hura berreskuratzea eskatzen dute Errausketaren Aurkako Mugimenduko kideek. “Hor dago negoziaketa hasteko oinarrizko dokumentu

bat”, gogorarazten dute.

### Egingarria

Egingarria dela nabarmentzen dute. Eta egi bihurtzeko gakoa, borondate politikoan dagoela nabarmendu zuten Joxe Mari Irazusta usurbildarrak eta Maria Luisa Sanchezek. Borondatearen baitan dago, egun Gipuzkoak dituen gaikako bilketa datuak hobetzea. Udalerriaren arabera, bilketa sistema ezberdinak daude indarrean. Sistemaren arabera, emaitzak ere desberdinak dira han eta hemen. “Desberdintasun horren gakoak zertan datza?”, galdetzen zuten hedabideen aurrean Errausketaren Aur-

kako Mugimenduko ordezkariak. “Batzuk gaikako bilketa sistema orokortua dute, besteek borondatean oinarritua”, azpimarratu zuten.

### “Bada zer hobeturik”

Errausketaren Aurkako Mugimenduko kideen aburuz, “ez da onargarria batzuek pertsonako 50 kg azpitik sortzea eta beste udal batzuek 250 kg edo 300 kg sortzea. Ez da logikoa, ez justua. Gutxienez Debagoienak 2016an lortu duen pertsonako 80 kg-taraino denak murriztea lortu daiteke eta lortu behar da. Hori eginez gero, Gipuzkoak 50.000 tona errefus sortuko ditu”.

## Hitzetatik ekintzetara igarotzeko deia

Gaikako bilketa sistema eraginkortzeak epe motzean dakartzan emaitza bikainak Gipuzkoa osora hedatzea posible dela nabarmendu dute. Dagoeneko udalerrri txiki, ertain eta handiak normaltasun osoz jorratzen ari diren bide horretara batzea galde-

gin diete gainerakoei. “Arrasaten, Beasainen, Hernanin edo Ordizian normaltasunez etxeetan egiten duten hori zergatik da ezinezkoa Donostian, Oreretan, Irunen, Azpeitian, Lasarten, edo Andoainen? Gakoa borondatea da. Eskatzen duguna da herri horietan

birziklatzearen alde daudela esatetik birziklatzearen alde egitera pasatzea”, gogorarazi dute. Alegia, gipuzkor orok sortzen ditugun hondakinen aurrean, erantzukizun maila parekidea izatea, eskura dagoen teknika hobereena baliatuz.

# merkeago eta osasuntsuagorik

## Urgentziazkoak, konpostatze plantak

Teknika hobereana aplikatzeko baliabideak jartzea administrazioari dagokio. Eta administrazioari, bilketa sistema eraginkorrenak sustatzeaz gain, bildutakoa tratatzeko Europako hondakinen kudeaketarako hierarkia (prebentzioa, berrerabilpena, birziklatzea...) errespetatuko duten azpiegitura egokiak prestatzea eskatzen dio Errausketaren Aurkako Mugimenduak. "Urgentziazkoa da Gipuzkoak dagoeneko organikoarentzako dauzkan azpiegiturak hobetzea eta behar diren berriak sortzea", zioten.

Gainerako hondakin zati birziklagarrien tratamendua (papera eta kartoia, beira eta ontzi arinak) hobetzea ezinbestekoa dela nabarmentzen



Errausketaren Aurkako Mugimenduak erraustegia alboratu eta Tratamendu Mekaniko Biologikorako (TMB) planta eraikitzea proposatzen du.

E. A. M.

**“Premiazkoa da organikoarentzako azpiegiturak hobetzea eta behar diren berriak sortzea”**

dute. Eta noski, erreusari ere irtenbidea ematea. Errausketaren Aurkako Mugimenduak erraustegia alboratu eta Tra-

tamendu Mekaniko Biologikorako (TMB) planta eraikitzea proposatzen du. Hurrengo urteotan, hondakinen kudeaketak izan dezakeen bilakaerari egokitzeko malgutasuna izango dena. Planta honetan, gogoraraten dutenez, "errefusari ateratzen zaizkio aprobetxatzeko dauzkan materialak eta gainerako guztia ondo sailkatzen du".

## Alternatibaren gako nagusiak

- Prebentzioa ahalik eta gehien sustatu.
- Gaikako bilketaren emaitza onak Gipuzkoa osora hedatu.
- Sortutako hondakin guztiak tratatu. Hondakin zati bakoitzari dagokion tratamendu egokia eman.
- Erreusarentzako Tratamendu Mekaniko Biologikorako (TMB) planta eraiki:
  - 1-Malgua: hondakinen kudeaketak etorkizunean izan dezakeen bilakaerara egokituko dena.
  - 2-Gaitasuna: urtean, 150.000-160.000 tona zabor tratatu, gaika bildutako 20.000 tona organiko konpostatu eta 13.000 tona ontzi arin sailkatuko litzuke.

### Etorkizunean

- 2.000 biztanletik beherako Gipuzkoako 43 udalerrietan zati organikoa bildu gabe

- konpostatzearen bidez tratatu.
- Berrerabilpena sustatu.
- Produktu sortzaileen erantzukizuna sustatu diseinuetan.
- Tarifa justuak sustatu: hondakinen sorreraren araberako ordainketa bultzatu. Gehien kutsatzen duenak gehien ordaintzea, gutxiago sortzen duenak gutxiago ordaintzea.
- Puntako eskualdeekin elkarlana bultzatzea: "Europar badira dagoeneko martxan, Gipuzkoa adinako eskualde handiak (Italiako Treviso...) 50 kg errefusetik 8 urteko epean 10 kgtara murrizteko lanean ari direnak".

### Erreusaren bilakaera

- Egungo 150.000 tona erreus ingurutik 50.000 tonara murriztuko litzateke Gipuzkoa osoan, gaikako bilketa eraginkortuz gero. 50.000 tona hauek TMB plantan tratatu ostean, 25.000

- tonara murriztu ahalko dira. Hauek, inerteentzako biltegietan utziko dira.
- Erraustegia eraiki eta martxan jarriko balitz, 150.000 tona erre ostean, 50.000 tona errauts eta eskoria toxiko sortuko litzuke.

### Kostua

- TMB planta: 70 milioi euro.
- Errauste planta: 212 milioi euro.

### Egungo datuak

- Gipuzkoako 88 udalerrietatik 58 udalerrietan, %70etik gorako gaikako bilketa dute. Gipuzkoarren %25ak hondakinak egoki bereizten ditu.
- Udallerri guztiotan, gehienez 80 tona erreus sortzen dute urteko eta pertsonako. Gipuzkoako zenbait udalerrietan, 50 kg edo gutxiago.

## Martxoaren 25eko manifestazioari begirako agerraldia larunbatean

Errausketaren Aurkako Mugimenduak aurkeztua duen alternatiba babesteko manifestazioa deitu dute martxoaren 25erako. Mobilizazio honi bultzada emateko, gipuzkoarrekin batera agerraldia deitu dute larunbaterako:

### Datozen deialdiak

#### Martxoak 18, larunbata

#### Agerraldia Donostiako Anoeta futbol zelai parean

- 12:00 Martxoaren 25eko manifestazioa bultzatzeko agerraldi masiboa herritarrekin, Donostiako Anoeta futbol zelai parean.
- Deitzailea: Errausketaren Aurkako Mugimendua.

#### Martxoak 25, larunbata

#### Manifestazioa Donostian

- 17:00 Erraustegiaren alternatiba babesteko manifestazioa, Donostiako Anoeta futbol zelai paretik Bulebarrera.
- Deitzailea: Errausketaren Aurkako Mugimendua.



Erraustegiaren aurreko alternatiba babesteko manifestazioa Donostiako Anoeta futbol zelai paretik abiatuko da.

# Ez dute zabortegirik nahi

Zubietako erraustegia eraiki artean, Gipuzkoarren zaborra Mutiloara eramatearen aurka protestatu zuten Goierri BirZirik herri plataformak deituta, aurreko igandean, Gipuzkoako Foru Aldundiak Donostian duen egoitza atarian bildu zirenek.

Birziklapenaren aldeko mobilizazioa ere izan zen martxoaren 12koa. Erraustegiarekin birziklatzea Europak ezarritako gutxiengoetara mugatuko dela ohartarazten dute. Horregatik, hondakinak murriztu eta sortutakoa ahalik eta gehien birziklatzeko neurriak abiatzea eskatzen diote Aldundiari. “Egin dezagun denon artean benetako ahalegina banaketa gainditu eta azken



Mutiloako Lurpe zabortegira Gipuzkoako errefusa eramateko hartutako erabakiaren aurka protesta egin zuten igandean.

garaietan gure lurraldean ia jaisteko, denon mesederako arazo handiena izan dena behin izango da eta”, adierazi zuten igandeko agerraldian.

# Kontrabandisten ibilbidean barrena



Andatzako kideek “Bidasoako Kontrabandistak” ibilbideko hirugarren etapa osatu zuten aurreko igan-

dean. “22ko taldeak (argazkian bat falta da) egin genuen ibilbidea, eguzki, euri eta gogor erasotzen zuen

haizeari aurre eginez. Ibilaldiaren amaieran harrera ezin hobia izan genuen Beintzako Orbela aterpean”.

## Baionako euskal lizeoa laguntzeko elkartasun kanpaina

Ipar Euskal Herriko euskal lizeo bakarra, Bernat Etxepareren eraikin berria ekipatzeko 300.000 euro behar dituzte. Laguntzarako “Euskararen sagartzea” elkartasun kanpaina antolatu dute.

### Ekarpenak non eta nola egin

Diru ekarpenak eginez, sagarondoak erosteko aukera duzue apirilaren 7ra arte, NOAUA!n, Alkartasuna Kooperatibian, Lizardi liburudendan eta Udarregi Ikastolan. Honez gain, eragile, elkarte, kooperatiba eta enpresei ere deia luzatzen zaie kanpaina honetan parte hartzeko. Honatx harremanetarako telefono zenbakia: 688 639 910.

## Aginagako txokoetan izena

### emateko epea, ixtear

Martxoaren 17an itxiko du Aginagako Eskola Txikiko Guraso Elkarteak, apirilaren 10etik 12ra eta 18tik 21era antolatu dituen txokoetarako izen ematea. Apuntatzeko idatzi email bat aginaga@eskolatxikiak.org atarira.

### Goizez izango dira txokoak

Txokoetako prezioa, apuntatu den haur kopuruaren arabera zehaztuko dute. Txokoak goizez izango dira, 09:00-13:00 artean (sarrera 10:00ak arte).

Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**

**URDAINTZI**  
eraikuntzak  
649 43 54 75 / 76  
943 36 72 64  
urdaintzi@euskalnet.net  
**ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK**

**BORDATXO**  
taberna  
**Pintxo Bereziak**  
943 37 10 42  
Zubiaurrenea 5

**ETXETRESNEN KONPONKETAK**  
azkar, prezio onean MARKA GUZTIAK  
20 URTEKO ESPERIENTZIA  
645417665  
XABIER  
**Usurbil**



# Tapa eta aurkibideak prest



Agur esan diogu 2016 urteari. NOAUA! guztiak bildu eta 2016ko tapa eta aurkibidearekin koadernatzeko garaia da. Bazkide zaretenok azala eta aurkibidea doan jaso ditzakezue NOAUA!ko egoitzan.

Tapa eta aurkibidea doan eskuratzen dituzte bazkideek. Bazkide ez direnek, aldiz, 3 € ordaindu behar dituzte tapa edo azalarengatik, eta 1,20€, aurkibidearengatik. Koadernatzea, Lizardin edota Lauroken egin dezakezue. Hori bai, koadernatzea berdin-berdin ordaindu behar dute bazkideek eta bazkide ez direnek.

## 2017ko irteerak

### BIDAIA TALDEAN

Irteera Lasarte-Oriatik  
NoaUA Bidaiek-ek lagunduta

### AEB-KO MENDEBALDEKO

## BETETA



### BALTIKOKO hiriburuetatik kruzeroa

## UZTAILA



### POLONIA

## ABUZTUA



Informazioa eta erreserbak bulegoan.



**NOAUA BIDAIAK**

Hecoloma Etorbidea, 18 - 20160 Lasarte Oria, Bizkaia  
T. 943 373 613 | info@noauidaiak.com  
[www.noauidaiak.com](http://www.noauidaiak.com)






# LABUR BIRA

FILM LABURREN XIV. ZIRKUITUA

## Martxoaren 26a, igandea

## 19:00etan Sutegin (doan)








# Astelehenean hasiko da Soinurbil

Aste hau jubilatuen aizaten ari bada, hurrengo musikaz blaitua datorkigu. Hemen da 13. Soinurbil Musika Astea:

## Martxoak 20, astelehena

■ 18:00/19:00 Organo erakustaldia Salvatore Elizan.

■ Zehaztasunak: “Usurbilgo organoa berezia da. 1907an Parisen eraiki zen, Cavaillé-Coll lantegietan. Joan Luis Atxegaren eskutik Usurbilgo organoa gertutik ikusteko aukera paregabea izango dugu”.

## Martxoak 21, asteartea

■ 18:30 “Kontu kantari” jolasean ikasi, musikaz hazi Sutegin.

■ Zehaztasunak: “Euskarazko hamar haur-kantuen kontzertua txotxongiloekin. Kontu kantarik gogoan ditugun kantuak bildu, eta beste erritmo batzuetara aldatzen ditu: reggae, rap edo bluesera. Aukera ona musikaz eta txotxongiloen mundu magikoaz familiarekin gozatzeko”.

## Martxoak 22, asteazkena

■ 19:00 Organo eta txistu kontzertua Salvatore Elizan.

■ Zehaztasunak:

Organo-jotzailea: Juan Luis Atxega Pagola.

Txistulari bakarariak: Estanis Karrera Sarasola eta Aitor Pa-



Zumarteko pop rock taldeen kontzertua Mikel Laboa plazan izango da. Martxoaren 25ean, eguerdiko 12:00etan.

## ZUMARTE

**Asteartean, Kontu Kantari ikuskizuna Sutegin. “Aukera ona musikaz eta txotxongiloen mundu magikoaz gozatzeko”**

gola Arizmendi.

Lezoko eta Usurbilgo txistulari taldea.

## Martxoak 23, osteguna

■ 19:00 Beasaingo musika eskolako bisita Sutegin. Doan.

■ Zehaztasunak: “Beasaingo Loinatz Musika Eskolako Usurbilera etorriko dira urtean

zehar egindako lana erakustera”.

## Martxoak 24, ostirala

■ 20:00 Rockalean ikuskizuna kalean.

■ Zehaztasunak: “Herriko kaleetako edozein lekutan jo dezakeen Rock talde bat imajinatzen al duzu? Ba horixe da Rockalean! Rock eta Pop estiloko kantu ezagunek osatzen dute gure kantu-zerrenda”.

## Martxoak 25, larunbata

■ 12:00 Zumarteko pop-rock taldeen kontzertua Mikel Laboa plazan.

■ Zehaztasunak: “Zumarte Musika Eskolako taldeek eskainiko

dute kontzertu hau. Adin desberdinetako ikasleak izango dira bertan parte hartuko dutenak eta dagoeneko emanaldi ugari eskaini dituztenak dira, taldeen izenak hauek dira: Zappa taldea, Nesquik Taldea, Ixaksonak Taldea, Ganbarakada Taldea eta The Hastelen's Taldeak”.

## Martxoak 26, igandea

■ 12:00 Azkoitiko musika bandaren kalejira eta kontzertua.

■ 12:00 Kalejira.

■ 13:00 Kontzertua frontoian.

Antolatzaileak: Zumarte Musika Eskola, Usurbilgo Udala. Laguntzailea: Gipuzkoako Foru Aldundia.

# Jubilatu Astea, azken txanpan

Larunbatean ibilaldia egingo dute Buruntzaldean barrena, eta igandean bazkari batean elkartuko dira Atxega jauregian. Horrela amaituko dute 2017ko Jubilatuta Astea.

## Martxoak 16, osteguna

■ 17:00 “Emozioak bizi” hitzaldia Artzabalgo ekitaldi aretoan, Matia Fundazioko kide baten eskutik.

## Martxoak 17, ostirala

■ 09:00 Jubilatuta Astea: Hernanira ibilaldia eta bazkaria. Artzabal, Santuenea, Lasarte-Oria, Urnieta eta Hernani lotuko ditu ibilaldiak. 14:00etan bazkaria jubilatuen etxean.

## Martxoak 19, igandea

■ 14:00 Bazkaria Atxegan. Antolatzailea: Gure Pakea Elkarte.



Astelehenean “Ekonomia, interes tipoa” izeneko hitzaldia egin zen Artzabalen.

# Gero eta gutxiago falta da Korrikarako



NOAUA!ko lekukoa eramango duen bazkidea nahi al duzu izan? Jarri gurekin harremanetan.

## NOAUA! aldizkariaren koadernatzea

2016an argitaratu ditugun 641 eta 682 zenbakien arteko aldizkariak koadernatzeko tapak eta aurkibideak eskuragarri dituzue NOAUA!n; bazkideok doan, gainerakoek tapa 3 eurotan eta 1,20 eurotan aurkibidea. Koadernatzea Lizardi edo Laurok liburu dendan egin dezakezue. Lanongatik denek berdin ordaindu beharko dute.

## XIV. Laburbira, martxoaren 26an

2016an zehar euskaraz ekoizti

### TAPAK ETA AURKIBIDEA

**“2016ko aldizkariak koadernatzeko tapak eta aurkibideak eskuragarri dituzue NOAUA!n”**

diren film laburren uzta eza-gutzeko aukera aparta izango dugu martxoaren 26an 19:00etan, NOAUA! Kultur Elkartearen eskutik Sutegin: “Azken Saskia”, “Beti bezperako koplak”, “Ihesa”, “Elenakarrak”, “Jalgi”, “280°”, EUSPOT Lehiaketako spot onenak, “Hileta”. Emanaldirako sarrera doakoa izango da.

## Korrikaren lekukoa eramateko deia

Badator 20. Korrika! Apirilaren 4an, gaueko 23:39an iritsiko da gure artera Lasartetik. Zubieta, Usurbil eta Aginaga zeharkatuko dituen ibilbidean zehar, lekukoa hartuko dutenen artean izango dugu NOAUA! Kultur Elkarte. Duela bi urte bezala, lekukoa zuek, NOAUA!ko bazkideok eramatea nahi genuke. Taldetxo bat osatu nahian gabiltza. NOAUA! kide bazara, deitu 943 360 321 telefono zenbakira edo idatzi elkarte@noaua.eus helbidera, martxoaren 24a baino lehen.

## Errigoraren oliba olio bidaien banaketa

Martxoaren 14ra arte eska zentzaketan, Nafarroa hegoaldean ekoiztiko oliba olio bidaiak eta kontserbak. Errigoraren elkartasun kanpainako oliba olio bidaien banaketa martxoaren 30 eta 31 aldera bideratuko dugu. Kontserbena ekaina hasieran. Jasotakoan eskatu dituzuenekin hartuemanetan jarriko gara. Ordainketak produktuok jasotzerakoan egin beharko dira. Informazio gehiago: errigora.eus



Oliba olio bidaien banaketa martxoaren 30 eta 31 aldera bideratuko da. Kontserbena, ekaina hasieran.

## Lan deialdiak

### Udajolaserako arduraduna eta begiraleak behar ditugu

Zehaztasunak: Usurbilgo Udalak eta NOAUA! Kultur Elkarteak uztailen antolatutako ohi duten Udajolas aisialdiko ekimenerako arduradun eta begiraleak behar dira.

Profila:

- 2 urteko esperientzia.
- Zuzendari titulua izatea.
- Begirale titulua izatea.
- EGA edo baliokidea den agiria izatea.
- Sexu delitua egiteagatik aurrekari penalak ez dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.
- Usurbildarrek lehenetsuna izango dute.

### NOAUA! banatzeko ordezkoren lan poltsa

Zehaztasunak: Gaur egungo banatzaileen batek bere lana utziko balu, ordezkora beharko genuke. Horretarako osatu nahi dugu lan-poltsa. Lan deialdion inguruko informazio gehiagorako eta Curriculumak bidaltzeko: elkarte@noaua.eus  
943 360 321  
Bordaberri, 3

### Bazkideen batzarra

NOAUA! Kultur Elkartearen bazkideen batzarra ostegun honetan:


Eguna: martxoak 16, osteguna.

Ordua: lehen deialdia 18:30ean, bigarrena 19:00etan.

Tokia: Potxoenea.

Gai zerrenda:

- 1-2016ko memoria eta balantze ekonomikoa.
- 2-2017ko egitasmoak eta aurrekontuak.
- 3-Zuzendaritza Batzordearen osaketa eta onarpena.
- 4-Galdera erantzunak.

A high-angle, close-up photograph of a person's arm and hand. The person is wearing a black, long-sleeved jacket. Their hand is holding a clear glass filled with a bright yellow liquid, likely beer. The background is a wooden floor with a prominent grain pattern. The lighting is warm and focused on the hand and glass.

**Klik! batean**

## Txotx garaia, bete-betea

Aurreko asteburukoa da argazkia. Euskal Herrian barrena, hamaika tokitan errepikatuko zen zeremonia hori bera. Eta toki bakoitzean, zenbat bider errepikatuko zen erritual berbera... Txotx garaia bete-betea da.

Argazkia: Ion Markel



# Maria Angeles Arruti: “Zerbait bada Aginagan, hainbeste urtez bizitzeko”

Ahalegin itzela egin du. Bizi den inguruarekiko duen ezagutza sakona baliatuta, eta jakinminak bultzatuta Aginagari argazkia aterar dio Maria Angeles Arrutik. Erretratu zehatza; zenbat biztanle dauden etxez etxe, zonaldeka eta adin tartearen arabera zer nolako biztanle kopurua duen, Aginagak zer nolako zerbitzuak dituen, zenbat etxe huts dauden...

Arrutik NOAUA!rekin partekatu nahi izan duen datu bilketa honen emaitzak nabarmentzekoak dira, bai behintzat ondorio argi batzuk ateratzeko modukoak. Guztira 445 biztanle zenbatu ditu Maria Angelesek Aginagan. Ia herenak, %32,13ak, 61-100 urte artean ditu. Baina are deigarriagoa den datu bat; 33 aginagarrek 81-100 urte artean dituzte. Haietatik zazpik 90 urtetik gora. “Zerbait bada Aginagan, hainbeste urtez bizitzeko”, adierazi dio NOAUA!ri azterketa soziologiko honen egileak.

## Buruz eginiko azterketa

Maria Angeles lehendik ere halako lanik egindakoa da. “Hau bigarren edo hirugarren aldia izango da. Gabon eskean Aginaga osoari buelta ematen diogu, ia etxe guztietara joaten saiatzen gara. Urtean zehar ikusten ez ditugun herriarrek egoteko aukera izaten dugu. Azkenekoz zenbat jende bizi ote garen ezagutzeko jakinmina piztu zitzaidan. Kostata, baina osatu dut datu bilketa”, adierazi digu Arrutik.

Aiarra sortzez, 46 urte daramatza Aginagan bizitzen. Bere bizileku inguruak ondo asko ezagutzen ditu. Horri esker, kasik azterketa osoa buruz egin du. “Kasu gutxi batzuetan se-



Aginagako biztanleria aztertu du Maria Angeles Arrutik. Bere lana NOAUA!ko irakurleekin partekatu nahi izan du.

## MARIA ANGELES ARRUTI

**“Kasu gutxi batzuetan senide edo lagunei galdetu izan diet, baina gainerakoa ia dena buruz egin dut”**

nide edo lagunei galdetu izan diet, baina gainerakoa ia dena buruz egin dut”, adierazi dio aldizkari honi.

## Baserrria, asteburuetarako

Ezagutza sakon horrek errazago ahalbidetu dio baita, ondorioak ateratzea. Esaterako, aginagar helduenak adinean aurrera egin edo hiltzen doazen heinean, hainbat etxe edo baserri hustutzen doaz. “Helduak hiltzen diren neurrian, eta seme-alabak etxetik kanpo bizi badira, baserrria gehienaz asteburuetan joateko izaten da”, adierazi du Arrutik.

## Duela urte batzuk, “familia ugariz josia zegoen Aginaga”

Bestalde, duela hamarkada batzuk, familia ugariz josia zegoen Aginaga. Baina etxebizitzak faltagatik asko dira kanpora bizitzera joandakoak. “Aginagako dena oso aginagarra da, beste tokietan bezala. Etxebizitzak lehenago eraiki izan balira, agian jende gehiago geratuko zen Aginagan”, adierazi dio aldizkari honi.

## Aginaga, zenbakitan: adinekoak

### 80-100 urte artekoak: 33

- 1923an jaioetakoak: Maria Zubiria, Pakita Orbegozo, Dolores Zubeldia, Joxe Zapiain.
- 1925ean: Benantxi Ugarte.
- 1926: Andres Bruño.
- 1927: Antonio Amunarriz, Migel Orbegozo, Joxe Manterola, Kontxita Tapia.
- 1928: German Hernandez.
- 1929: Saturnina Azpiroz,

Ceferina Fernandez, Maria Luisa Arruti.

- 1930: Inaxita Altuna, Kandido Etxeberria.
- 1931: Herminia Sanchez, Ramon Rezola, Agate Rekondo, Antonio Arrillaga.
- 1932: Julian Pikabea, Juan Ugarte.
- 1933: Pakita Etxeberria, Juanita Peña.
- 1934: Joxe Tolosa, Tomas

Lesaka, Santi Bengoetxea, Fortu Puertas.

- 1935: Juanita Furundarena.
- 1936: Joxe Luis Urkia, Arantxa Muguruza, Clara Huegun, Joakina Esnal.

### Jubilatuak

- Bazkide txartelarekin: 82.
- 80 urtetik gorakoak: 45.

# Eskola Txikia, Aginagako herri girorako pizgarri

Herri bizitzan ere nabaritu da aldaketarik. Gogoan izango duzue urte amaieran denetarikoko produktuak eskaini eta saltoki huts bat baino gehiago zen Eiza itxi zutela. Etorkizun hurbilean, zerrendatu dituen zerbitzu kopurua murrizten joan daitekeela aurreikusten du Maria Angelesek. Baina gainbehera honetan, bada oasi bat; handitzen doan Eskola Txikia. “Umeak dezente ugaritu dira. Aginagarrez gain, Txokoalde edo Usurbildik ere joaten dira. Eskola bizia ematen ari zaio Aginagari”, adierazi dio aldizkari honi.

Egin duen azterketa NOAUA!ko irakurleokin partekatzeaz gain, kaxoi batean gorde asmo du. Datuok eguneratzen joan nahiko luke eta urte batzuk barru, egin duen lanketa eredu gisa hartuta, datu bilketa egin berriz. Egun dituen zenba-



Aginagako Eskola Txikiko ikasleak txantxoz mozorrotu ziren Inauterietan.

## IKASLEAK, UGARITU

**“Aginagarrez gain, Txokoalde edo Usurbildik ere etortzen dira. Eskola bizia ematen ari zaio Aginagari”**

kiak eskutan, urte batzuk barru zer nolako Aginaga irudikatzen duen galdetu diogu.

## Aginaga, lotoki bihurtzeko arriskuan

“Kontu egin zer adinetako jendea dagoen eta zenbat gauden. Ze espero behar dugun? Deskuidatuz gero hamarnaka herritar gutxiago izatea Aginagan”, adierazi digu. Establezimenduak ere ixten doazela ikusita, azkenerako Aginaga lo egiteko gunean bilakatu daitekeela ohartarazten du Arrutik.

## Aginaga, zenbakitan:

### Baserri eta pisu hutsak

Saria, Intxaurreta (bi pisu), Telleindegi baserria, Aintzi-berri (eroria), Espaldi-zahar (bi bizitza), Uri-berri (bi pisu), Imindotz, Arrillaga-Txiki (eroria), Errasti-zahar (4 edo 6 pisu), Errasti (Eskabietxeria izana), Belokiena, Oroitzapena (bi pisu), Osalontxonea (2 pisu), Espaldi-berri (3 pisu), Iruntxo-Tapia (bukatu gabe, geldituta), Komentzanea (bi bizitza).

### Zerbitzuak

■ Eskola Txikia (ikasturte honetan 18 ikasle HHn, 21 LHn. Hurrengo urtean, 44 ikasle izatea espero dute).

■ Soziedadea.

■ Tabernak: Etxebeste, Sekaño, Arrate Egoitza.

■ Sagardotegiak: Urdaira eta Aginaga.

■ Hotela: Aginaga Hotela.

■ Lanbideak: aroztegia, harategia, esnetegia, garraiolaria, loretokia eta 7 angula-etxe (Manterola, Bruño, Maioz, Otamendi, Izagirre, Atxega eta Dani Izagirre).

## Aginaga zenbakitan: biztanleria, adinaren arabera

### Kaxkoa

Guztira	0-15 urte	16-60 urte	61-80 urte	81-100 urte
313	48	159	73	23

### Intxaurreta

Guztira	0-15 urte	16-60 urte	61-80 urte	81-100 urte
45	3	23	15	4

### Mendi bailara

Guztira	0-15 urte	16-60 urte	61-80 urte	81-100 urte
55	9	32	9	5

### Sekaña

Guztira	0-15 urte	16-60 urte	61-80 urte	81-100 urte
42	6	22	13	1

**Guztira: 445      0-15 urte: 66      16-60 urte: 236      61-80 urte: 110      81-100 urte: 33**

# Kontsultarako galdera eta abestiaren aurkezpena, igande honetako Bizi Kalean

Musikak girotu zuen otsaileko hitzordua. Igande honetan ospatuko den edizioak aldiz, erabakitze eskubidearen aldarria izango du ardatz nagusietako bat. Martxoaren 19an bueltan dator, Hurbilago Elkarteak antolaturiko Bizi Kalea. Ohi bezala, jan edanarekin, haurrentzako eskulan txokoarekin, zozketekin... Eta oraingoan, maiatzaren 7ko galdeketa antolatzen ari den Herritzartu Elkarteak ere parte hartuko du gune gastronomikoan. Hurbilago Elkartearekin batera, galdeketa laguntzeko tonbola egingo dute.

Sarien zozketa egingo da igandean. Baina errifak aurrez erosi ahalko dira euro baten truke, Bizi Kalean parte hartzen duten tabernetan.

## Kantuaren aurkezpena, igandean 13:00ean

Tonbolarekin batera, maiatzaren 7ko kontsultarako galdera eta abestia ere aurkeztuko ditu Herritzartuk. Abestia, herriko musikariek sortu dute erabakitze eskubidearen egun han-



Igande honetan, Herritzartukoek galdeketaaren aldeko tonbola ipiniko dute Bizi Kalea festan. Kontsultarako galdera ere aurkeztuko dute, eta baita prozesu osoa girotuko duen kantua ere. Hori dena Munalurran izango da.

## HERRITZARTU TONBOLA

**“Errifak aurrez erosi daitezke euro baten truke, Bizi Kalean parte hartzen duten tabernetan”**

dirako. Galderari dagokionez, gogoan izan, martxoaren 12ra arteko epea genuela Herritzartuk proposaturiko hiru galderetako bat hautatzeko. Hiruretatik zein izango den kontsulta

egunean usurbildarroi egingo zaigun galdera, martxoaren 19an ezagutuko dugu. Bizi Kalea gune gastronomikoaren baitan emango dute aditzera, kantaren berri emateko deitu duten aurkezpen ekitaldian.

## Bizi Kalea, egitaraua:

- Eguna: martxoak 19, igandea.
- Ordutegia: 11:30etik aurrera.
- Tokia: Munalurra, Txapel-dun taberna atariko plaza. Europa ari badu, frontoian.

■ Mokaduak: txanpinoiak parrrilan, zaldi haragidun bolak eta gazta sagarkia gozoarekin.

■ Haurrentzako eskulan tailerra, Txirinbolo dendaren eskutik.

■ Maiatzaren 7ko galdeketaaren aldeko tonbola. Errifak aurrez eskuragarri, Bizi Kalea ekime-nean parte hartzen duten tabernetan.

■ 13:00ean maiatzaren 7ko galdeketaarako herriko musikariek sortu duten abestiaren eta kontsultarako galderaren aurkezpena.

# Zubietan, galderak proposatzeko azken egunak

Igandera arte, martxoaren 19ra arteko epea dute zubietarrek, Zubiartean Elkartea maiatzaren 7rako antolatzen ari den kontsultarako galdera proposatzeko.

## Martxoaren 21ean asteartea, batzarra Kaxkapen

Martxoaren 21ean 19:00etan Kaxkapen deitu duten batzar irekian hautatuko dute gal-

dera. Gogoan izan bestalde, manifestua ere plazaratua duela Zubiartean Elkartek. Sinadurak biltzen ari dira.

## Sinadura bilketa

Bideotatik eman diezaioketue zuen atxikimendua manifestuari eta baita galdera proposatu ere: [zubiartean@gmail.com](mailto:zubiartean@gmail.com)  
Facebook: Zubiartean



Zubietan ere, maiatzaren 7an egingo da herri galdeketa.



# Hondakinen kudeaketa eredu propiorako bide-orria prest

8urte beteko ditu martxoaren 16an, Usurbilgo atez ateko bilketa sistemak. 8. urtemuga honetan, etorkizunera begira lanean dihardu udalerrri honek, hondakinen kudeaketa eredu propio bat izateko ahaleginean. Abenduaren 22an "Usurbil 0.0" izeneko behin behineko bide orria aurkeztu ostean, herritar, eragile eta nazioarteko hainbat adituren ekarpenak biltzen aritu da Udala azken hiru hilabeteotan. Prozesu honetatik behin betiko izaera eman zaio dokumentu honi. 2023. urtera bitartean, hartu beharreko neurriak zehaztu dituzte.

"2008. urtean hondakinak era arduratsuagoan kudeatzeko aitzindaritzaz hartu genuenetik, Usurbilek hainbat aurrerapauso eman ditu norabide horretan. Espainiar Gobernuako Ingurumen Ministerioak Usurbilgo Udala praktika onen eredu gisa aitortua du gaur egun, eta ohikoa da bestelako erakundeetatik Usurbilgo udalerrira bisita egitea bertako bilketa ereduaz ezagutzeko. Bederatzi urteren ondoren, usurbildarrek argi eta garbi helarazitako mezua jaso dugu, eta Usurbilgo Udalak bere hondakinen kudeaketa integratuz garatzeko ahalmena duela erakusten dugu programa honen bitartez", azaldu du Xabier Arregi Usurbilgo alkateak. Azken hilabeteotako emai-



"Usurbil 0.0" izeneko behin behineko bide orria aurkeztu ondoren, herritar, eragile eta nazioarteko hainbat adituren ekarpenak biltzen aritu da Udala.

## USURBILGO UDALA

**"2008. urtean hondakinak era arduratsuagoan kudeatzeko aitzindaritzaz hartu genuenetik, Usurbilek hainbat aurrerapauso eman ditu norabide horretan"**

tzak ere ezagutzera eman ditu Udalak. Azken urteotako ildo beretik, balantze positiboa egin du. "Zalantzarik gabe, ondoriozta dezakegu Usurbilgo hiri hondakin gehienak gaika biltzen direla eta gainera bildutakoa kalitate oso onekoa dela", adierazi du alkateak.

## Gaikako bilketaren emaitzak

- Gaikako bilketa (2016ko data): %84.
- Usurbildarren hondakinen sorrera (2016ko data): 475 kg

pertsonako eta urteko.

- Erreusa (2016ko data): -75 kg sortu ditu usurbildar bakoitzak 2016an.

-Gipuzkoan egindako 50 karakterizazioetatik material biodegradagarri gutxien (%8,81) eta material mixto gehien (%51, pixohial eta konpresak) zuen erreusa, Usurbilgoa.

- Biohondakinen 2017ko urtarileko karakterizazio emaitza:

-Usurbilgo biohondakinak, kalitate gorenekoak.

-Usurbilgo biohondakina material konpostagarri gehien zue-na (%99,78 eta erreus gutxien (%0,22).

## Prozesuan parte hartu duten adituak

Besteak beste:

- Joan Marc Simón, 'Zero Waste Europe' erakunde zuzendaria.
- Ramon Plana, Biologian

doktore eta hondakin organikoaren tratamenduetan aditua.

- Gorka Bueno, Ainhoa Iraola eta Dani Zuazagoitia EHUko Ingenieritza Eskolako ordezkariak.

## 2023rako helburuak

- Usurbilgo hiri hondakinen sorrera %10 murriztea.
- Usurbilen sorturiko biohondakina herrian konpostatu eta erabiltzea.
- Hiri hondakinen %90a gaika biltzea.
- Hiri hondakinen bilketa eta tratamendu zerbitzuaren defizita 0 izatea.

## 41 puntuko ekintza plana

Aurreikusitako ekintzen artean:

- Herriko biohondakina base-ri konpostaren bidez birziklatu eta konposta herrian bertan erabiltzea.
- Tasa bidezkoagoak sustatzea, kutsatzen duenak gehiago ordain dezala indartuz.
- Ekitaldi publikoetako zein kale garbiketako hiri hondakinen zerbitzua hobetzea, gaikako bilketa hobetuz eta prebentzio protokoloa martxan jarritz (edalontzi eta mahai tresneria berrerabilgarriak, prebentzio eta kudeaketa programak, etab).
- Errefusaren bilketan, hondakin inerteen datuak hobetzen jarraitzea.

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

## USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER  
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4  
Tlf 943 37 08 78

20170  
USURBIL

txirriStra  
TABERNA

-Plater konbinatuak  
-Ogitartekoak  
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

## Bertso-afaria, ETB-n ikusgai

**M**atrakak Usurbilgo Talde Feministak eta Usurbilgo Udalak Martxoaren 8ari begira antolaturiko ekimenen baitan, bertso-afaria ospatu zuten martxoaren 10ean Artzabalen, Onintza Enbeita, Uxue Alberdi eta Ane Labaka bertsolariekin. Saioa Euskal Telebistako "Hitzetik Hortzera saiorako grabatu zuten. Asteotan emitituko dute; igande arratsaldero eskaintzen dute saioa, 15:00etan ETB 1en.



Martxoaren 10eko bertso saioa Matrakak taldeak eta Udalak antolatu zuten.

## Zumarte Abesbatzako gazteenak, Haurtxo Koruen Tailerrean

**P**asa den asteburuan, Zumarte Abesbatzako haur gazteenek Haurtxo Koruen Tailerrean hartu zuten parte. Hondarribian egin zen ikastaroa, Gipuzkoako Abesbatzen Federazioaren ekimenez.

Tailer honetan Gipuzkoan federatutako abesbatzek hartzen dute parte, 7-14 urte bitarteko haurrei eskainia dago hain zuzen. "Musika korala lantzeko asteburu-pasa izan da", Zumartetik aditzera eman digutenez. "Koru-errepertorio erakargarria, indarrez betea eta oso dibertigarriak lantzen aritu dira. Alderdi ludikoa garatzeko, Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak aisialdi ekimenak antolatzen dituen begirale-talde baten laguntza izan du". Asteburuan egindako lan guztiaren erakusgarri izan zen Amute auzoko Kaputxinoen Elizan eskaini zuten kontzertua. Zumarte Musika Eskolak ikasleak zoriondu nahi ditu, "egun hauetan egindako lan guztia-rengatik".



Asteburuan egindako lan guztiaren erakusgarri izan zen Hondarribiko Amute auzoko Kaputxinoen Elizan eskaini zuten kontzertua.

### Igande honetan, Gipuzkoako Orientazio Ligako proba Andatzen

Gipuzkoako Orientazio Taldeak antolatzen du Orientazio Liga. Igande honetako proba Andatza inguruan egingo dute. 150 lagunek izena eman arte zabalik izango dute inskripzioa, gotorientazioa.org atarian.

"Orientazio froga bat, mapa batean adierazitako ibilbide bat, naturan jarritako balizak bilatuz egingo datza. Parte hartzaile bakoitzak, mapa bat eta kontrol txartel bat izango du, bertan baliza bakoitza zulatu beharko delarik", argitu dute antolatzaileek. Ibilbidean zehar antolaketak ezarritako ordenean bilatu beharko ditu balizak, helmugara iritsi aurretik.

#### Irteera, Txokoaldetik

- 9:30 Harrera gunearen irekiera Txokoaldeko pilotalekuan.
- 10:00 Lehen irteerak.
- 12:00 Azken irteerak.
- 14:00 Itxiera.
- Informazio gehiago: GOTorientazioa.org info@gotorientazioa.org
- Antolatzailea: Gipuzkoako Orientazio Taldea.
- Laguntzaileak: Usurbilgo Udala, Euskal Herriko Unibertsitatea, Sua Edizioak eta Natura 2000.



Txokoaldeko pilotalekutik abiatuko dira igande honetan goizeko 9:30ean.

# Pagazpe, garaipenaren bidean

**P**agazpe elkartearen denboraldi ederra osatzen ari da. Eskuz binakako Ohorezko Mailan, Euskal Ligako txapelketa irabazi berri du. Emozio handiko finalean, Santxo-Altuna bikotea Azpeitiko Ilunpe taldeko Alberdi-Uzkudun bikoteari gailendu zitzaion. 22-21 izan zen azken emaitza.

Gasteizko Lakuako frontoian giroa pil-pilean izan zen. Txapela, azkenean, usurbildar ordezkariarentzat izan zen. Iaz ere, Pagazpeko bikotea gailendu zen.

## Euskal Liga

Eskuz binakako, Ohorezko Maila Pagazpe (Santxo-Altuna) 22 Ilunpe (Alberdi-Uzkudun) 21.



Gasteizen jokatu zen finalean, Santxo-Altuna bikotea 22-21 nagusitu zen.

**Usurbil F.T.-ren Kirol Txokoak** Datorren oporraldirako txokoak antolatzen ari da Usurbil F.T. Jada izen emateko epea ireki dute. Martxoaren 31ra arte bideratu ahalko da

inskripzioa, Haranen. Kirol jarduera ezberdinetan parte hartzeko aukera eskaintzen duten txokoak, apirilaren 18tik 22ra izango dira, goizez, 09:30-12:30 artean.

# Pala motzean, Arruti-Millet bikotea Euskal Herriko txapeladun

**J**on Arrutik eta Clement Milletek Euskal Herriko pala motzeko txapelketa irabazi dute. Ohorezko mailako finala jokatu zen aurreko asteburuan, eta puntu bakar bati esker eskuratu zuten garaipena. Emozio handiko norgehiagoka izan zen.

Edozein izan zitekeen garaile, baina azken tantoa Pagazpekoen aldekoa izan zen. Armintzako Orueta-Mendizabal bikotea izan zen Usurbilgo Pagazpe Pilota Elkarteko bikotearen aurkaria.

Bikote sendoa osatzen



Arruti eta Millet, sariak eskuratu berritan. Argazkia, Pagazpek igorria.

dute Arrutik eta Milletek. Gipuzkoako Kluben Arteko Txapelketan ere onenak izan ziren.

## Euskal Herriko txapelketa

Pala motza ohorezko maila Pagazpe (Milhet-Arruti) 40 Armintza (Orueta-Mendizabal) 39.

## Eskubaloitako partidak

### Martxoak 18 larunbata

■ 10:00 Alebin mutilak, Buruntzaldea:

Udarregi 5B-Urnieta 5B

■ 10:00 Alebin mutilak, Buruntzaldea:

Udarregi 6B-Urnieta 6B

■ 11:00 Infantil neskek, Gipuzkoako Txapelketa: Udarregi A-Ibaiondo Taberna Legazpi

■ 12:15 Infantil mutilak, Gipuzkoako Txapelketa: Udarregi A - Amenabar B Zaratuz.

■ 15:45 Kadete mutilak, Euskal Liga: Usurbil K.E.-Urkunde Elgoibar.

■ 17:30 Jubenil neskek, Euskal Liga:

Usurbil K.E.-San Adrian.

■ 19:15 Senior mutilak, 1. nazionala: Ucin Aluminio Usurbil-Maristas Zaragoza.

### Martxoak 19 igandea

■ 11:30 Jubenil mutilak, Federazio Torneo: Usurbil K.E.-Arrano Taberna Bergara.

## Selekzioarekin

### Martxoak 19 igandea

■ 16:00 Infantil mutilen Gipuzkoako Selekzioaren saioa, Oreretako Beraungo frontoian. Lander Iribar, Ekaitz Ibargoien eta Ekain Ramos deitu dituzte.

■ 16:00 Kadete mutilen Gipuzkoako selekzioaren saioa Orioko Karela Kiroldegian. Eneko Furundarena deitu dute hitzordura.

■ 18:00 Jubenil mutilen Gipuzkoako selekzioaren saioa Orioko Karela Kiroldegian. Joseba Errazkin, Eneko Iribar eta Julen Nazabal deitu dituzte.

■ 18:00 Jubenil nesken Gipuzkoako selekzioaren saioa Oreretako udal kiroldegian. Eider Makazaga, Malen Azpiazu eta Nagore Lertxundi deitu dituzte.

# ELORZA

OBRAK ETA  
ERREFORMAK S.L.

661 804 688

San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

*Patxi*  
Patxi  
bazkariak EGUNERO  
afariak. asteazkenetik larunbatera  
© 943 362725 · © 688 690 361

ARRANDEGIA  
**PELLO**  
PUNTAPAX 7  
943 36 21 64  
USURBIL

## ETXEBIZITZA

## Salgai

Ganbara, atiko edo trasteleku bat erosiko nuke Usurbil edo inguruan. Tel. 630 490 844.

90 m<sup>2</sup> pisua Kale Nagusian. 4 logela, 2 komun, saloia, sukalde handia, trastelekua. 657700408

Duplexa Kalezarren - Aizparrenea etxea, 176 m<sup>2</sup> (120 + 56). Garajea eta terraza. Igogailua eta fatxada berritua. 395.000 euro. 679002101

Pisua salgai Santuenean. 2 logela, sukalde, egongela, komuna eta trastelekua. Tel. 664 689 597.

Etxebizitza bat salgai Atxegalden. Alperoburu Ban. 3 logela, sukalde, egongela eta 2 bainugela. 25 m<sup>2</sup> trastelekua. 626 347 914

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berrituta, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m<sup>2</sup>. 637 22 88 60

Pisu bat salgai. 90 m<sup>2</sup>. 3 logela handiak, 2 bainugela, jan-egongela, sukalde, jantokia aparte eta trastelekua. Dena kanpoaldera. 605 707 642.

78m<sup>2</sup> pisua Atxegalden. 4 logela, 2 komun, sukalde, egongela, balkoi luzea, trasteroa. Igogailua. Eguzkitsua. 215.000 euro. 656742207

BOE-ko 79m<sup>2</sup> etxebizitza Aginagan salgai. 3 logela, 2 komun, saloia, sukalde... Dena kanpoaldera, balkoi-terrazarekin, eguzkitsua, garaje itxia, trastelekua. 629631838

2 gela, komuna, sukalde eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukalde. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Pisua salgai Urdaigan. Trenbide-pasagunearen ondoan. 56m<sup>2</sup>. Pisu baxua. Berritua. Sukalde irekia, esekilekua, egongela, 2 logela eta komuna. 90.000 euro. 646344847

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean.

## OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berriena. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

lñaki (665736896)

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukalde egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

## Alokairuan

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Pisu bat Santuenean. 2 logela, sukalde, egongela, komuna eta sukalde. Animaliak ez dira onartzen. 667 680 236.

Logela baten bila nabil, sukalde erabiltzeko aukerarekin. Tel. 697 241 684.

Negozio-lokal bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsua batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, 3 logelekin posible bada. 648 220 432.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

Pisu baten bila nabil, altzariekin eta

gehienez 550 euro. 661 378 340.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel: 620 708 265 / 686 143 786.

Gela bat alokatzen dut Usurbilen. Emakume edo neska arduratsua izan behar du. Tel. 665 319 105.

## MOTORRA

## Salmenta,

## garaieak

Kotxe bat salgai, 3 hilabete bakarrik ibilia. Oso kilometro gutxi. Renault Clio marka, gris argia eta 5 ate. 943 370 677

Garaje itxi bat alokatzen da Kale Nagusian, Usurbilgo sarreran. 657795378

Garaje marra bat salgai Munalurran. Tel. 646 663 405

Vespa 125 T5 motoa salgai. Kotxeo karnetarekin gidatu daiteke. 1990ekoa. Egoera oso onean. 1.200 euro, negoziagarriak. 646329441.

Daelin Message motorra salgai, 49 zilindro. 6.400 km, 15 urte inguru. Istripurik gabe. 450 euro, negoziagarriak. Tel. 637 760 816.

Galtzarainako garaje marra salgai. 20.000 euro. 687348223

Garaje itxia salgai, 38 m karra-tukoa, Txaramunto, 12. Usurbilen. Mikel 665677195

Garaje itxia salgai, 38 m<sup>2</sup>, Txaramunto kalea 12. Mikel: 665677195

Marradun garaje plaza bat alokatzen dut Bizkarre auzoan. Hilean 70 euro. 696 014 585.

Garaje itxia salgai, 38 m koadro, Kalea Txaramunto, 12. Usurbilen. 665677195

Hiru lokal, komertzio edo garaje moduan salgai Santuenean. 16, 18 eta 42 metro koadrokoak. Argitsuak. 671 547 567.

Garaje itxi bat salgai 36,30 me-

tro koadro. 2 kotxerentzat edo garaje-trastero moduan. Errekaxiki-Puntapaxetik. 653380557.

Oso argitsua den 70 metro karratuko lokal komertziala salgai Santuenea auzoan. 671547567

Lokal komertzial bat salgai, 60 metro karratu. Erdigunean. Tel. 679 732 489.

Bi garaje saltzen dira. Batera edo binaka. 21 eta 25 metro koadrokoak Santuenea 17. 615149900.

## LANPOSTUAK

## Lan eskaintzak

Zubietan, etxeko lanak egiteko emakume bat behar da. Lanaldi erdirako 695 783 202.

Arrandegirako langilea behar dut. Euskara jakitea ezinbestekoa. 628 063 871.

Aseguru sektorean espezializatua den gestore personal baten bila gabiltza. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrerara altuak. jm.fandino@catalanaocidente.com. 699 760 873.

## LANPOSTUAK

## Lan eskaerak

Haurrak zainduko nituzke orduka: 619 355 819

Geriatria laguntzaile bezala, edo sukaldari bezala (euskal sukaldarean ezagutza). 688 654 698.

Ileapaintzaile bat naiz, eta etxetan ilea orrazteko eskaintzen naiz. Aproposa pertsona helduentzat, edo etxetik atera ezin duenarentzat. 612 487 017.

Helduak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanak egiten lan egingo nuke. 632 587 450.

Asteburutan, interna bezala lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen. 602 871 835.

Etxeko lanak egiten edo garbiketari, umeak edo pertsona helduak zaintzen edo sukaldean lan egingo nuke. Tel. 617 166 950.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan eta orduka. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanetan. Berehala lanean hasteko. 606267824

Lan bila nabil, umeak edo hel-

duak zaintzen edo etxek garbitzen. Tel 632 587 450.

Etxeko lanak egiten, eta helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Paperak egunean. Interna moduan ere bai. 667 281 660

Paperak eguneratuak dituen gazte, geriatrian laguntzaile tituluduna, tabernak garbitzen eta sukaldari laguntzaile gisa aritutakoa, orduka edo interno moduan garbiketa lanetarako edo helduak zaintzeko prest. 669 679 186

Emakumea eskaintzen da arratsaldeetan hiruzpalau orduz etxeko lanetan aritu edo adinekoak zaintzeko. 675 70 24 28.

Pertsona serio, arduratsua eta paperekin, ordukoak lan baten bila: plantxa lanetarako, haur eta adinekoen zaintza, garbiketa lanak, tabernan arraskan aritzea, etc. 688 642 835/ 697 887 581.

Etxeko zerbitzuan, helduak edo umeak zaintzeko eskaintzen naiz. Usurbilgoa naiz eta erreferentziak ditut. 658703636 Lupe

Auxiliar laguntzaile tituluduna, helduak zaintzeko eta etxeko zerbitzurako prest, baita garbiketa lanak egiteko ere. 622925562

Lan bila nabil, garbiketari, jate-txek batean harraskan aritzeko edo pertsona helduak zaintzen. Paperak egunean. Tel. 667 983 617.

Mutil gazte euskalduna DBHko ikasleei klase partikularrak emateko eskaintzen da. Ingeniaritza kimikoa graduatua, ingeles maila altua. 695 726 499. Jon

Lan bila nabil, orduka edo umeak zaintzen. 645 530 490.

Lan bila nabil, interna moduan edo orduka. 631 108 012.

Berandu baino lehen ekin! Irati eta Ane bakarkako partikularrak, arreta hizkuntzen sakontzea eta beste zenbait lanketa eskaintzen ditugu. Pedagogia eta beste hainbat ikasketak. Deitu edo bidali mezua: 617 684 523 / 680 160 278.

Emakume euskalduna eskaintzen da, astean bi edo hiru egunetan garbiketa lanak egiteko, goizez edo arratsalde, irailtik aurrera. Oso arduratsua. 671 547 567

18 urteko nerabea eskaintzen da uda garaian baratzako lanak egi-



**Zorionak bikote!!**  
Martxoaren 15ean, zuen urtebetetzea izan da. Ondo ondo pasako zenuetela espero dugu. Muxuak etxekoan partez.



**Zorionak Garazi!**  
Ostiralean 9 urte beteko dituzu! Muxu goxo bat ama, aita eta Uxue-ren partez!!!



**Zorionak Garazi!**  
Aste honetan 12 urte beteko dituzu. Ondo pasa eta zorionak denon partez.

## Heriotzak

## Nikolas Izeta

## Olozaga

94 urterekin hil zen martxoaren 9an Usurbilen



teko. Tel. 616 260 451.

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna bezala, orduka edo ospitalean egoteko. Tel. 676 188 411.

Neska arduratsua lan bila dabil pertsona helduak zaintzen, interna moduan ere bai. 618 756 934

Neska arduratsua lan bila dabil pertsona helduak zaintzen, interna moduan ere bai. 631 224 621

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketaren lanetan. 642 704 992.

Lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzen eta garbiketaren lanetan. Paperekin eta esperientziarekin. Tel. 617 888 854.

Etxeak eta bulegoak garbitzeko, eta pertsona helduak zaintzeko eskaintzen naiz. Asteburuetan eta ospitalean gauak pasatzeko ere bai. Tel. 606 661 048.

Etxeak, bulegoak eta portalak garbitzeko edo pertsona helduak zaintzeko eskaintzen naiz. Tel. 673 256 566.

Neska arduratsua bat eskaintzen da garbiketaren lanetan. Libre edozein momentutan hasteko moduan. 629 110 310.

Etkez etxe txakurrei ilea mozteko eskaintzen naiz, material guztiarekin eta txakur ileapaintzaile titularekin. 666 798 804.

Lan bila nabil, umeak edo pertsona helduak zaintzen. Interna moduan ere bai. Paperekin eta erreferentziarekin. Tel. 667 281 660.

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka edo baserrian lan egiteko. 631 108 012

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka edo baserrian lan egiteko. 619 355 819

Mutil bat lan egiteko prest. Pertsona helduak zaintzen, baserrian animaliak zaintzen edo pintore bezala. 619 355 819

Neska bat lan bila dabil. Orduka edo interna moduan. Pertsona helduak edo umeak zaintzen eta garbiketaren. Esperientzia eta erreferentziarekin. (Dokumentazioa egunean). Berehalan lanean hasiko

nintzateke. Tel. 632 797 416.

Senar-emazte gazte bat, lan bila dabil, baserri batean. Interno moduan edo orduka. Esperientzia handia eta erreferentziarekin. Tel. 631 916 262 / 631 882 360.

Lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen edo beste lan batzuk egiteko. Esperientzia eta berehalan lanean hasteko moduan. Tel. 631 916 262.

Lan bila nabil Usurbilen. Umeak edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia eta berehalan lanean hasteko moduan. Tel. 631 882 360. Esperientzia zabala duen emakumea eskaintzen da haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Edozein ordutan lan egiteko prest. 660 041 361

Saltzaile edo administrazioaile moduan, lan egiteko lukeen 31 urteko emakume bat naiz. Tel. 675 703 163. Berta.

Emakume bat eskaintzen da asteburutan pertsona helduak zaintzeko. Tel. 646 756 555.

Neska gazte euskaldun bat haurrak arratsaldetan zaintzeko prest eskaintzen da. Esperientziaduna haurrak zaintzen eta udalekuekin. Tel. 661 626 500. (Maialen)

Lan bila nabil. Edozein lan egiteko nuke. Interna moduan ere bai. Umeak edo helduak zaintzen, garbiketaren lanak egiten, jabetxearen batean harraskako garbiketaren lanak egiten, etab. Tel. 676 188 411

Pertsona helduak zaintzen lan egiteko nuke asteburutan. Esperientziarekin. 657 708 895.

Pertsona bat eskaintzen da propaganda edo gutunak banatzeko. Tel. 943 364 527.

Mutil bat eskaintzen da, helduak zaintzeko, baserriko lanetan aritzeko edota edozein lanetarako. Interno moduan lan egiteko prest. Tel. 662 286 266.

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldar, garbiketaren.

tan. Arduratsua. 622 487 879.

#### BESTELAKOAK

Betaurreko batzuk agertu dira, graduatuak eta funtza beltz batean. Atxegaldeko erdiko kalean. Zureak badira, deitu: 943 37 13 48

Artzabal inguruan ume txano grisa galdu dugu; ponpoiduna eta belarriak tapatzekoak dituen. Norbaitek aurkituko balu, eskertuko genuke udaltzaingoan entregatzea.

Belarra mozteko makina elektrikoa (gutxi erabilia) eta enkortxadora salgai. 943363201

Bi artzai txakurkume Gorbea arrazakoak saltzen dira. 637 974 994

Piano edo teklatu bat erosiko nuke. 675 00 70 48 Garbiñe.

Litera bat salgai, metalikoa, grisa eta 2 X 0,90 metroko neurriekin, salgai. Tel. 646 305 658.

Kotxeko ume aulki bat salgai, 2-3 urteko grupokoa. Arroxa. 646 305 658.

Katakumeak oparitzen ditut. Ba-

serrian ohituak. Tel. 610 375 595.

Txokoaldan, San Esteban gora aldera igotzen, Mugi txartel bat aurkitu da. Izena: Jose Maria Otaegui Mugica. Udaltzainetan dago, eta pasa handik bila.

Puntuzko txaketa beige bat galdu zen uztailaren amaieran, ambulategi erdigune inguruan. NOAUA!ra ekarri mesedez.

Abuztuan Usurbilgo Udaltzain-gora haurrentzako botika eta higieneko produktuz betetako laranja koloreko nezerez edo botikin bat entregatu dute. Galdu duenak Udaltzaingoan galde dezala.

Pago egurra salgai (txinisko eta ekonomikoko egokia) 627355126.

Maiatzaren 26an, 17:00ak aldera Oiardo Kirolegian Golf gris auto bati kolpe txiki bat eman nion. Ohar bat utzi nion. Zurea bada jarri nirekin kontaktuan; 635 71 35 97.

Katuak oparitzen ditugu Donostikat elkartean. 633 273 747 / 605 730 115

Nort Face markako eta urdin turkesa koloreko haur forro polarr bat galdu da. Aurkitu baduzu deitu 678 084 020.

Mobilhome bat alokatzen dugu Landetan uztaileko bigarren hamabostaldian, uztailaren 17tik 31ra. Aste bakarrerako edo hamabostaldirako alokatzeko aukera. 660 057 667

Italiera klaseak eskaintzen dira. Kontakua: 699 609 058.

Borda baten bila gabiltza Usurbil inguruan. Gehienez 10.000 metro koadroko terrenoarekin. Telefono zenbakia: 608 703 669

Hemengo urra erosiko nuke. 634 409 888.

#### TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuek... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenerik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

## Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Aberre-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korroes - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Ambulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (Ilehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta.....	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kirolegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala.....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaual Kultur Elkarte.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

## Goardiako farmaziak

**Osteguna 16** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loloia 9. Lasarte

**Ostirala 17** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Larunbata 18** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Igandea 19** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Astelehena 20** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Asteartea 21** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Asteazkena 22** GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

## Martxoak 16 - martxoak 26

**Osteguna 23** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loloia 9. Lasarte

**Ostirala 24** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Larunbata 25** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Igandea 26** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

\* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE  
Elkano 9 Behea, Hernani  
943 55 20 87 22:00 - 09:00

Gainontzeko datak [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) web orrian ikusgai.

# Agenda martxo

## 17 ostirala

- **Jubilatu Astea: ibilaldia.** 09:00etan Artza-baletik.
- **Clown saioa: "Gorputz higiena".** 17:30ean Bihurri ludotekan.
- **"Nacido en Siria" dokumentala.** 19:00etan Sutegin.

## 18 larunbata

- **"Lalala soinu gela"** Zumarte Musika Eskolan.
- **Autodefentsa feminista tailerra.** 10:00-14:00 / 15:30-19:30 Potxoenean.
- **M25eko manifestazioari begirako agerrialdia.** 12:00etan Donostian, Anoetako futbol zelaian.

## 19 igandea

- **Gipuzkoako Orientazio Liga.** 9:30ean Harrera gunearen irekiera Txokoalden.
- **Bizi Kalea** Txapeldun taberna aurreko plaza. 11:00-15:00.
- **Jubilatu Astea:** bazkaria 14:00etan Atxega Jauregian.

## Igandean Olarrondon, 'Bizi Kalea'

Honakoan, Txapeldun tabernaren aurreko plaza izango da 'Bizi Kalea' jardunaldiaren topalekua. Goizeko 11:00etan hasi eta eguerdiko 15:00ak arte luzatuko da festa.

Gastronomia, musika, mokaduak, po-teak, azokak, zozketak... Eta honakoan, Herrizarturen tonbola. Antolatzaileak: Hurbilago eta Hurbilago Elkarteko tabernariak, Usurbilgo Udalaren laguntzarekin.



Eguerdiko 15:00ak arte luzatuko da festa.

## "Gorputz higiena" clown saioa

"Parte hartuko duten antzezleen aurkezpena egingo da, eta ondoren, sorosleek argi eta garbi azalduko dituzte jarraitu beharreko pausoak: eskuak garbitzea, dutxa, hortzak garbitzea". Ostiral honetan 17:30ean, Bihurri ludotekak antolatuta.



Ostiral honetan, Bihurri Ludotekan 17:30ean.

## "Nacido en Siria" dokumentala

Siriako gerra hasi zenetik, lau milioi inguru siriarrak herria utzi egin behar izan dute, biolentziatik ihesi. Erdia baino gehiago haurrak dira. Juanito Orella eta Jose Luis Aranburu herritarrak Serbian izan berriak dira. Han ikusitakoaren berri emango dute. Bestalde, Mundu Berri Elkarteko kideak ere bertan izango dira, emanaldiaren ondoren, hitzaldi solasaldia egiteko.

- Ostiral honetan 19:00etan Sutegin.
- Sarrera: egunean bertan 2 eurotan (sarreratik ateratako dirua, serbiarrentzat izango da).
- Antolatzailea: Mundu Berri Elkartea.

### Datozenak

## Erraustegiaren alternatibaren aldeko manifestazioa

Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak manifestazioa deitu du martxoaren 25erako (larunbata). Arratsaldeko 17:00etan abiatuko dira eta Donostiako Anoeta futbol zelai paretik Bulebarrerako bidea osatuko dute.

## Datorren larunbatean, kantu jira

Martxoaren 25ean larunbata, kantu jira. 19:00etan abiatuko dira Mikel Laboa plazatik. "Har ezazue liburuxka eta zatozte elkarrekin kantatzera", dei hori egin dute Usurbilgo Kantu Taldekoek.

## Martxoaren 26an, ordu aldaketa

Udako ordutegira egokitzeko garaia da. Ordu aldaketa hurrengo astean egingo da: martxoaren 26an, goizaldeko 02:00etan 03:00ak izango dira.

**Uraitz, s.l.**  
Igeltseritza  
Orokorra

693 059 392  
uraitz@uraitz.com USURBIL

**ALDAMU**

KONPONKETAK  
KALE NAQUSIA 10- atzekoaldea  
943 372 795

Josue  
Igeltseritza

606 37 21 05  
Atallu pol.28 USURBIL

**Iñaki Iturgintza**

BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA  
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK

info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com  
600 024 825

# MAIATZAREN 7KO HERRI GALDEKETA BABESTEKO atxikimendu kanpaina

- 400 HERRITARREN ARGAZKI ERRALDOIA.
- 1979tik HONAINOKO HAINBAT HAUTETSIREN ARGAZKIA.
- 31 ERAGILE EZBERDINEN ATXIKIMENDUA:

Udarregi ikastola, Hitz Aho guraso elkarte, Andatza kirol elkarte, Etumeta AEK euskaltegia, San Praixku guraso elkarte, Peña Pagola elkarte, Aitzaga elkarte, Erroizpe elkarte, Ibai Ondo elkarte, Santueneako Gure Elkarte, Andazpe elkarte, Mahaspildegiko elkarte, Aginagako Atarialde elkarte, Baxurde Txiki taldea, Dantza taldea, Euzko Alderdi Jeltzalea, EHBildu, Sortu, Ernai, Gazte Asanblada, Etxerat, Kantu taldea, Herriko musika taldeak (Zaparra, Izeberg, Rukula, Desegin, Hotzikara, Iñorkiñak, Erokomeri eta Odolaren mintzoa), Usurbil K.E. Eskubaloit taldea, Usurbilgo Futbol Taldea, San Estebango jai batzordea, Atxegaldeko jai batzordea, Agiñako jai batzordea, Zubietako jai batzordea, Errausketaren aurkako taldea eta Hurbilago.



## martxoak 19

11:00, *Bizi kulea* JAIAREN BAITAN  
TXAPELDUN TABERNA AURREKO PLAZAN.

### tonbola

HERRITZARTU eta HURBILAGO elkarlanean!

13:00  
HERRIKO MUSIKARI EZBERDINEK  
HERRI GALDEKETAREN ALDE SORTUTAKO

### abestiaren aurkezpena

ONDOREN  
MAIATZAREN 7KO HERRI KONTSULTAKO

### galderaren aurkezpena



# URDAIRA



## Sagardotegia

astelehenak itxita

**Aginaga 943 37 26 91**



## OTSUA-ENEA SAGARDOTEGIA

### 943 55 68 94

Osinaga bailara, HERNANI



# LARRE-GAIN DOLARE SAGARDOTEGIA



Urtarriletik maiatzak 7ra  
**TXOTX GARAIA**

Hernanitik autobus zerbitzu propioa  
Astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserria **Ereñotzu - Hernani**  
Tel: **943 55 58 46** Mugik: **616 287 867**



Iruin Sagardotegia

Etorri eta dastatu sagardo berriak

30 Urte baino gehiago Usurbildarrei  
sagardo hoberenak eskeintzen.

Iruin, beti zuegandik gertu.

943.361.229

Petritza bidea 12, Zubietza

# ELUTXETA

SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena izan ezik.



Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • **943 55 69 81**



Kalezar 39, USURBIL sidrerria@sidrassaizar.com www.sidrassaizar.com

943 37 39 95

## SAGARDOTEGIA

# aginaga

Hotela \*\*

URTE OSOAN  
ETXEKO SAGARDOA  
TXOTXETIKI!

ORAIN, BERTAN LOTAN  
GELDITZEKO AUKERA!  
ASTELEHENETAN ITXITA

**943 36 67 10**

Aginaga, USURBIL [www.aginagasagardotegia.com](http://www.aginagasagardotegia.com)

Txotxetik sagardoa  
jarraitu usadioa!



%100 bertako sagarra

Tel: **943 365 031**

Santuenea